

Zalantzak kentzeko bidea

Hiztegien lehen eginkizuna, nire uste-tan, zalantzak kentzea da. Hitz baten nondik-norakoa, edo hitz horren esangura osoa, edo hitz hori nola idazten den, edo kontzeptu bat zehazki zertzen* edo situatzen ez dakizunean, hiztegiara begiratzeko duzu, eta han jasotakoaz baliatzen zara, zalantzak uxatzeko.

Izenak berak ere —aleman hizkuntza gaizki ezagutzen dutenen ustetan— hala dioenez, hortarakoxe da Aleman Errepublikan Demokratikoko Der grosse Duden hiztegia: «Zalantza handietarako». Frantziako Le Monde arratsaldeko egunkari sonatuak ezagutzera eman duenez, zentsuraren artaziak* eta Inkisizioaren lapitz gorria pasatu dira liburu horren barnetik.

Norbaitek Estatu kolpea zer den jakin nahi balu, ez luke hor aurkituko, holakorik inoiz gertatuko ez bailitzen.* Beste norbait, hauteskunde* kontutan axolaturik, joko elektoralak, edo kanpaina elektoralak, edo sekretu elektoralak zer diren eta nola egiten diren (holakorik dagoen lekuan, noski) jakin minez balego, jakin gose berarekin segitu beharko luke. Demokrazia burgesaren jakintzarik ez da zabaldu nahi, antza.* Oraindik ere gutiago emango da sistema kapitalistaren «urteburuko* sariaren» berririk.

Baina komunismoaren barneko munduan ere hautapen bat baino gehiago egirik du Hiztegi honek. Eman dezagun, idazlan bat egin beharrean aurkitzen dela norbait, eta Maori buruz hitz bat edo beste jarri nahi lukeela. Ba doa Hiztegiara, eta zer aurkituko? «Mao: txinatar gizon politikoa». Egia esan, zehazpen horrek ez du Mao asko askorik definitzen. Dudak kentzeko ez du askorik balio, Chiang-Kai-chek eta Chu En-Lai ere «txinatar gizon politikoa» baitira.

Maorena irakurriz, ba dakigu behintzat Mao hori ba dela, bizi dela. Baina Stalin eta stalinismoa? Stalinik ez dago Hiztegiarentzat, eta, gisa* denez, stalinismorik ere ez. Horixe bai dela desestalinizazioa seriotan hartzea!

Joera hau —ixiltze txikiratzaile,* omisiozko gezur, intolerantzia— aspaldiko ohitura da munduan. Nahikundeak* hartu nahi lirateke errealitatetat. Izena kenduz, izana desegiten dela uste izaten du zentsurak. Umekeria da hori eta ez besterik.

«Huelga»ren ordez «paro obrero» esanez, ez da grebarik* desegin, gutiago grebaren arrazoinik.

Gizonak —batez ere agintedunak, eta oraindik gehiago agintezaleak— erizpide* bat bakarraren izenean gauza guztiak epaitzeko eta neurtzeko joera beldurgarria du. Erizpide hori berdin da edo erligiozkoa, edo ideologiazkoa, edo politikazkoa, edo gustuaren arabera* izatea. Hitlerrek sei milioi judu garbitu zituen, atsegin ez zitzaizkiola eta. Koronelen Grezian, debekatu egin zen «Troiatarrak» musikal obra, doinua Theodorakisena zelako. Aspaldi baiteko «Prometeo kateatua» delakoaren zenbait bertso kendu egin ziren, koronelei ez zitzaizkielako atsegin. Joan Manuel Serrat katalan kantariaren diskoak ez dira gehiago telebistaz eta irrati-entzungo, kantari honek politikazko zenbait eritzi agertu duelako. Futbol zelaiak ere presondegi bihurtu zituën Pinochet jaunak, debekatu egin zituen Gorki, Conrad, Cortázar, J. London...

Tolerantziarik eza eta egia ezkutatu nahia, horixek dira agian* munduan hobekien hedaturiko* joerak, zeren* eta, bestek* zioenez, «los extremos no se tocan; los extremistas sí». (Joan Mari Torrealday)

Politika lehenengo?

Europa, gaurkoz, Merkatu bat da, Merkatu (ez hain) Bateratua: CEE (Europar

Ekonomiazko Komunitatea). Europaren batasuna, beraz, ezer izatekotan, ekonomiazkoa da.

Eta, hala ere, haseran, ideia izpiritual bat zen Europa. Europa Batua gurasoen asmotan, demokraziaren aberria izan nahi zuen Europak. Munduko herrien mosaikoan, kultura desberdinen plazan, Europak berezitasunik baldin badu, hori demokrazia omen da, edo izan behar luke. Gaurko hitzekin esateko, autogestiozko sozialismoa, hots,* sozialismoa eta askatasuna maila guztietan egiaztuko duen sistema.

Gaurko eguneroko Europaren bizitza ikusita, besterik pentsatu behar da. Gobernari askorentzat, ekonomiazko elkartetik at,* Europa ez da deus.* Frantziaren jokabidea aztertzea nahiko da. Antza,* Frantziarentzat (bai Pompidouren Frantziarentzat, bai Giscardenarentzat), Europa ekonomikoak du garrantzia. Europa politikoa ere egin behar dela inoiz Giscardek esan badu ere, egin besterik egin du. Espainia, dagoen bezala, Merkatu Bateratuan hartzeko, Giscard beti egon da prest.

Europaren ideia defendatzerakoan,* bi Europa daudela esan daiteke: Iparraldekoa eta Hegoaldekoa. Goikoek Europa demokratikoaren defentsa handiagoa egiten dute. Askatasunarekiko sentikortasun handiagoa dute. Libertatezaleago bezala agertzen zaizkigu. Holanda, Suedia,* Danimarka* etab. aipatu besterik ez dago. Esaizu Covisa jaunari. Gobernarien mailan hitz

IRAKURLEARI

Irakurle zintzo, urte hontan euskal komiki batzu eskaini dizkizugu. Ilusio haundiz egin dugu zure aldeko ahalegin hori.

Handik eta hemendik zenbait erantzun jaso dugu. Zurea ere eskuratu nahi genuke. Esaguzu, mesedez, zer pentsatzen duzun, gustatu ote zaizun, zer hobetu behar genukeen, zer aldatu. Zure ustez, aurrera segitu behar ahal dugu?

Zer egin behar dugu, irakurle?

ANAITASUNAKo bulegora bidal zazkiguzu, otoi, zeure erantzunak.